ZIENTZIAREN ERTZETIK

Hitzaldi-solasaldia Iker Lauzirika ikertzailearekin

Posible al da plataforma digitaletako gorroto-diskurtsoak mugatzea?

Durangon, 2026ko urriaren 27an. Gorroto-diskurtsoak pil-pilean daude eremu digitalean. Gezurren eta albiste faltsuen zabalkundea, deshumanizazioa eta, are gehiago, adingabeak edo beste kolektibo zaurgarri batzuk kanporatzeko edo haien aurkako indarkeria esplizitua sustatzeko deiak dira horien adierazpenetako batzuk. Diskurtso horiek geldiarazteko asmoz, azken urteotan hainbat ekimen jarri dira martxan, hala nola FARO sistema. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak (OBERAXE) abian jarri du tresna hau sare sozialetako gorroto-diskurtsoak denbora errealean monitorizatzeko.

Tresna honen helburua da Instagram, TikTok, X, YouTube eta Facebook bezalako plataformetan zabaltzen diren gorroto-mezuak detektatzea eta aztertzea, baita horiek salatzeko aukera erraztea ere, plataformek kendu ahal izan ditzaten. Azken datuen arabera, 2026ko abuztuan FARO sistemak gorroto-diskurtsoekin eta narratiba diskriminatzaileekin lotutako 101 025 eduki detektatu zituen bost sare sozial horietan, aurreko hilabetean erregistratutako kopurua baino nabarmen gehiago (57 406).

Hala ere, monitorizaziotik haratago, noraino iristen da indarrean dagoen araudia plataforma digitaletako gorroto-diskurtsoak mugatzeko orduan? Eta herritarrok zer egin dezakegu horiei aurre egiteko? Gai horiei buruz hausnartzeko, **Iker Lauzirika** EHUko Zuzenbide Fakultateko Konstituzio eta Europar Batasuneko Zuzenbideko doktoregaiak "Posible al da plataforma digitaletako gorroto-diskurtsoak mugatzea?" hitzaldi-solasaldia emango du datorren azaroaren 6an, ostiralean, 18:30ean, Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekan.

Bere hitzaldian, Lauzirikak plataforma digitaletako gorroto-diskurtsoak arautzeak dakartzan erronkak eta aukerak aztertuko ditu. Horretarako, indarrean dagoen araudia

azalduko du, eta sarean gorroto-diskurtsoen aurrean nola jardun dezakegun argituko du. Ondoren, egungo legediari buruzko hausnarketa kritikoa egingo du, zuzenbideak egoera hori hobetzen zenbateraino lagun dezakeen aztertzeko.

Sarrera librea da lekua bete arte. Hitzaldi-solasaldia euskaraz izango da, eta *streaming* bidez ere jarraitu ahal izango da EITBren ETB On plataformaren eta EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren TikTok kanalaren bitartez.

Jarduera hau EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Durangoko Liburutegiak antolatzen duten *Zientziaren Ertzetik* dibulgazio-zikloaren 2026/2027 ikasturteko bigarren hitzaldia da. Denboraldi honetan, gorroto-diskurtsoak izango dira hitzaldien ardatz nagusia: nondik datozen, nola identifika ditzakegun, zer eragin duten eta nola egin diezaiekegun aurre gizarte bezala. Lehenengo hitzaldia, "Gorroto-delituak: kontzeptua eta gaurko errealitatea" izenekoa, EHUko Zuzenbide Penaleko kadradun Jon-Mirena Landak eskaini zuen, YouTuben ikus daiteke.

Hizlaria

Iker Lauzirika Ansola Zuzenbidean graduatua da EHUn, eta Abokatutza masterra egin du Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean. Gaur egun, doktoregaia da EHUko Zuzenbide Fakultatean, Konstituzio eta Europar Batasuneko Zuzenbidearen arloan. Bere tesian, adimen artifizial sortzaileko sistemei buruzko informazioa jasotzeko herritarrek duten eskubidea ikertzen du. Bere ikerketa-lanaren barruan, plataforma digitaletan pluralismoa, desinformazioa eta gorroto-diskurtsoak nola arautu beharko liratekeen ere aztertzen du.

Hitzaldi-solasaldia

- **Hitzaldia:** "Posible al da plataforma digitaletako gorroto-diskurtsoak mugatzea?"
- **Hizlaria:** Iker Lauzirika Ansola, Konstituzio eta Europar Batasuneko Zuzenbideko doktoregaia (EHU).
- **Hizkuntza:** euskaraz.

- **Data:** azaroaren 6an, ostiralean, 18:30ean.
- **Lekua:** Bizenta Mogel Biblioteka (Komentukalea, 8, Durango).
- ***Streaminga*:** bai. EITB (ETB On) eta Katedratik (TikTok Live).

ZIENTZIAREN ERTZETIK

Charla-coloquio con el investigador Iker Lauzirika

¿Es posible limitar los discursos de odio en las plataformas digitales?

Durango, 27 de octubre de 2026. Los discursos de odio están a la orden del día en la esfera digital. La difusión de bulos y noticias falsas, la deshumanización e incluso la incitación a la expulsión o a la violencia explícita contra menores u otros colectivos vulnerables son algunas de sus manifestaciones. Para tratar de frenarlos, en los últimos años han surgido distintas iniciativas como el sistema FARO, puesto en marcha por el Observatorio Español del Racismo y la Xenofobia (OBERAXE), para monitorizar en tiempo real los discursos de odio en redes sociales.

El objetivo de esta herramienta es detectar y analizar los mensajes de odio que circulan por plataformas como Instagram, TikTok, X, YouTube y Facebook, así como facilitar su notificación para que puedan ser retirados. Según los últimos datos publicados, en agosto de 2026 el sistema FARO detectó un total de 101 025 contenidos de discurso de odio y narrativas discriminatorias en estas cinco redes sociales, una cifra notablemente superior a la registrada el mes anterior (57 406).

Pero, más allá de la monitorización, ¿hasta dónde llega la normativa vigente a la hora de limitar los discursos de odio en las plataformas digitales? Y ¿qué puede hacer la ciudadanía para combatirlos? Para reflexionar sobre estas cuestiones, **Iker Lauzirika**, investigador predoctoral en Derecho Constitucional y de la Unión Europea en la Facultad de Derecho de la EHU, ofrecerá la charla-coloquio "Posible al da plataforma digitaletako gorroto-diskurtsoak mugatzea?" (¿Es posible limitar los discursos de odio en las plataformas digitales? el próximo viernes 6 de noviembre a las 18:30 horas en Bizenta Mogel Biblioteka de Durango.

Durante su intervención, Lauzirika analizará los retos y oportunidades que supone regular los discursos de odio en las plataformas digitales. Para ello, trazará un recorrido

por la normativa vigente y explicará cómo podemos actuar frente a estos discursos en la red. A continuación, realizará una reflexión crítica sobre la legislación actual y hasta qué punto el derecho puede contribuir a mejorar esta situación.

La entrada es libre hasta completar el aforo y podrá seguirse en *streaming* a través de la plataforma ETB On de EITB y del canal de TikTok de la Cátedra de Cultura Científica de la EHU. La charla-coloquio se impartirá en euskera.

Esta actividad es la segunda conferencia del curso 2026/2027 del ciclo divulgativo *Zientziaren Ertzetik*, organizado por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU y la Biblioteca de Durango. Esta temporada, las conferencias giran en torno a los discursos de odio: su origen, cómo podemos identificarlos, qué influencia tienen y cómo podemos afrontarlos como sociedad. La primera charla, titulada "Delitos de odio: concepto y realidad actual" e impartida por Jon Mirena-Landa, catedrático de Derecho Penal de la EHU, está disponible en YouTube.

El conferenciante

Iker Lauzirika Ansola es graduado en Derecho (EHU), con máster de abogacía en la Universidad Pompeu Fabra de Barcelona. En la actualidad es investigador predoctoral en Derecho Constitucional y de la Unión Europea en la Facultad de Derecho de la EHU. Su tesis aborda el derecho de la ciudadanía a recibir información sobre los sistemas de inteligencia artificial generativa. Dentro de su labor investigadora también estudia cómo deberían regularse cuestiones como el pluralismo, la desinformación o los discursos de odio en las plataformas digitales.

Charla-coloquio

- **Conferencia: "**Posible al da plataforma digitaletako gorroto-diskurtsoak mugatzea? (¿Es posible limitar los discursos de odio en las plataformas digitales?"
- **Conferenciante:** Iker Lauzirika Ansola, investigador predoctoral en Derecho Constitucional y de la Unión Europea (EHU).

- **Idioma:** euskera.
- **Fecha**: viernes, 6 de noviembre de 2026, a las 18:30 horas.
- **Lugar**: Bizenta Mogel Biblioteka (Komentukalea, 8, Durango)
- ***Streaming*:** sí. EITB (ETB On) eta Katedratik (TikTok Live).